

Dualtasun ekonomikoa: lurraldea egonkor mantentzen den bitartean, industria atzeraldiaren atarian

Merkatuaren egoera. Enpresen %83k uste dute merkatuaren egoera normala edo suspertzen ari dela, iazkoaren aldean +2 puntu gehiago.

Industria sektorean, ordea, zortzi puntu gutxiago dira. Izan ere, industria-enpresen %25,5ek atzeraldiaren zantzuak antzematen dituzte.

Eskaera-zorroa. Enpresen %36k diote eskaera maila ahula dutela, iazkoaren aldean +3,5 puntu gehiago. 2021eko urtarriletik izan den daturik okerrena.

2021etik gutxienekoetan: eskaeren ahultasunak industriaren ia erdia kolpatzen du, eta lau urteko mailarik baxuenera jaisten dira.

Enpresen %88,5ek aurreikusten dute plantilla mantendu edo handitzea, iazkoaren aldean -2 puntu.

Fakturazioa eta salmentak. Batez besteko fakturazioa %3 handitu da aurreko hiruhilekoarekiko.

Enpresen ia erdiarentzat, lan-kostu handiek sortzen duten kezka da oraindik kezka nagusia.

Bigarren postuan jarraitzen du lan-absentismoak: enpresen %37k aipatzen dute, iazkoaren aldean +3 puntu.

Hirugarren tokian mantentzen da langile kualifikatuak kontratatzeko zailtasuna: enpresen %35ek aipatzen dute, +1,5 puntu gehiago.

Laugarren postura igo da tentsio geopolitiko eta komertzialek sortzen duten kezka.

2026an, BPGaren hazkundera %1,5 eta %2,5 artekoa izatea espero da.

2026an, Gipuzkoan urteko batez beste 2.000 eta 3.000 enplegu garbi sortu litezke, batez ere zerbitzuen eta eraikuntzaren sektoreetan.

Donostia 2026eko otsailaren 6a.

Merkatuaren egoera

Enpresen %83k uste dute merkatuaren egoera normala edo suspertzen ari dela, iazkoaren aldean +2 puntu gehiago.

Industria sektorean zortzi puntu gutxiago dira. Izan ere, industria-enpresen %25,5ek atzeraldian zantzuak antzematen dituzte.

Merkatua atzeraldian dagoela uste duten enpresak %17 dira, iazkoaren aldean -2 puntu.

Industria-enpresen %25,5entzat merkatua atzeraldian dago; metalgintzan %27,5 (makineria eta ekipamendua %44,5; metalurgia %19,5) eta metalikoak ez direnetan %21. Eraikuntzan %8,5 baino ez dira, eta zerbitzuen sektorean %5 soilik; zertxobait gehiago enpresei zuzendutako zerbitzuetan (%7,5) eta gutxiago merkataritza eta ostalaritzan (%3,5).

Merkatua suspertzen ari dela uste duten enpresak %24,5 dira, 2020ko irailetik izan den mailarik baxuena. Iazkoarekin alderatuta, -0,5 puntuko jaitsiera izan da. Industria-enpresen %21ek aipatzen dute suspertzea; metalgintzan %19,5ek (metalurgia %14,5), metalikoak ez direnetan %25ek. Eraikuntzan enpresen %75ek aipatzen dute suspertzea, eta zerbitzuen sektorean %21,5ek; alde nabaria dago merkataritza eta ostalaritzaren (%16,5) eta enpresei zuzendutako zerbitzuen (%27) artean.

Merkatuaren egoera normala dela uste duten enpresak %58 dira, iazkoaren aldean +2,5 puntu.

Industria-enpresen %53,5ek adierazten dute normaltasuna, metalikoetan %53 eta metalikoak ez direnetan %54. Eraikuntzan %16,5ek soilik aipatzen dute normaltasuna, eta zerbitzuetan %74k; gehiago merkataritza eta ostalaritzan (%80) enpresei zuzendutako zerbitzuetan (%65,5) baino.

Laburbilduz, enpresen %83k uste dute merkatuaren egoera normala edo suspertzen ari dela, iazkoaren aldean +2 puntu.

Fakturazioa eta salmentak

Batez besteko fakturazioa %3 handitu da aurreko hiruhilekoarekiko: industria %3,3; eraikuntza %3,4; zerbitzuen sektorea %2,5.

Industria barruan, igoera handiagoa izan da metalgintzako adarretan (bereziki makineria eta garraio-materiala) metalikoak ez direnetan baino. Zerbitzuetan, enpresei zuzendutako zerbitzuetan igoera zertxobait handiagoa izan da merkataritza eta ostalaritzan baino, nahiz eta aldea txikia izan.

Merkatuen arabera, kanpo-merkatuan fakturazioa %3,5 handitu da, eta barne-merkatuan %2,2. Barne-merkatuan ere bilakaera positiboa izan dute industria-enpresek.

10 enpresetatik 4k salmentak handitu dituztela adierazi dute, iazkoaren aldean +3,5 puntu gehiago; 10etik 2k, berriz, jaitsiera izan dute. Industria-sektorean, ehunekoak %36,5 eta %29,5 dira, hurrenez hurren.

Enpresen %23k salmenten jaitiera adierazi dute, -1 puntu iazkoarekin alderatuta, eta 2023ko urtarriletik izan den mailarik baxuena.

Industria-enpresen %29,5ek adierazi dute jaitiera (metalikoak %28: metalurgia %34 eta makineria %26; metalikoak ez direnak %33,5); eraikuntzan %8,5 eta zerbitzuetan %15 (merkataritza eta ostalaritza %16,5; enpresei zuzendutako zerbitzuak %11,5).

Enpresen %36,5ek salmentak mantendu dituzte, iazkoaren aldean -2,5 puntu. Industria-enpresen %34,5ek mantendu dituzte (metalikoak %37; metalikoak ez direnak %25,5); eraikuntzan %58,5 eta zerbitzuetan %36 (merkataritza eta ostalaritza %30; enpresei zuzendutako zerbitzuak %46).

Ondorioz, salmentak mantendu edo handitu dira enpresen %77tan, iazkoaren aldean +1 puntu.

Industria-enpresen %70,5ek mantendu edo handitu dituzte (metalikoak %72; metalikoak ez direnak %66,5); eraikuntzan %91,5 eta zerbitzuetan %85 (merkataritza eta ostalaritza %83,5; enpresei zuzendutako zerbitzuak %88,5).

Eskaera-zorroa

Enpresen %36k diote eskaera maila ahula dutela, iazkoaren aldean +3,5 puntu gehiago. 2021eko urtarriletik izan den daturik okerrena.

Eskaeren ahultasunak industriaren ia erdia hartzen du, 2021etik mailarik baxuenak markatuz.

Enpresen %20k diote eskaera maila handia dutela, 2021eko urtarriletik izan den mailarik baxuena, iazkoaren aldean -2,5 puntu.

Eskaera maila handia dutela diote industria-enpresen %19k (metalikoak %21; metalikoak ez direnak %12,5), eraikuntzan %58,5ek eta zerbitzuetan %15ek (merkataritza eta ostalaritza %14; enpresei zuzendutako zerbitzuak %15,5).

Eskaera maila ahula dutela diote enpresen %36k, iazko urtarrilarekin alderatuta +3,5 puntu gehiago. 2021eko urtarriletik izan den daturik okerrena.

Industria-enpresen %48,5ek dute eskaera ahula (metalikoak %47; metalikoak ez direnak %54); eraikuntzan %16,5 eta zerbitzuetan %18,5 (merkataritza eta ostalaritza %17; enpresei zuzendutako zerbitzuak %19).

Eskaera maila normala dutela diote enpresen %44k, iazkoaren aldean -1 puntu. Industria-enpresen %32,5ek adierazten dute normaltasuna (metalikoak %32,5; metalikoak ez direnak %33,5); eraikuntzan %25ek eta zerbitzuetan %66,5ek (merkataritza eta ostalaritza %69; enpresei zuzendutako zerbitzuak %65,5).

Eskaera maila normala edo handia dutela dioten enpresak %64 dira, iazkoaren aldean -3,5 puntu, eta 2021eko urtarriletik izan den emaitzarik baxuena.

Produkzio-ahalmenaren erabilera

Produkzio- ahalmenaren (PAU) erabilera maila %83koa da, iazkoaren aldean +1,5 puntu

PAU %83ra iristen da enpresa handien eskutik, eta %80tik gora dago sektore guztietan, metalurgian eta industria ez-metalikoetan izan ezik.

Industria-PAUa %80,5ekoa da, eta berriz ere zabaldu da industria metalikoaren (%82) eta ez-metalikoaren (%73,5) arteko aldea. Eraikuntzako PAUa %95,5ekoa da, eta zerbitzuen sektorekoa %86,5ekoa; alde nabaria dago merkataritza eta ostalaritzaren (%82,5) eta enpresei zuzendutako zerbitzuen (%89) artean.

Plantillak

Enpresen %88,5ek aurreikusten dute plantilla mantendu edo handitzea, iazkoaren aldean -2 puntu.

2026an, Gipuzkoan urteko batez beste 2.000 eta 3.000 enplegu garbi sortu litezke, batez ere zerbitzuen eta eraikuntzaren sektoreetan.

Enplegua handitzea aurreikusten duten enpresak %21 dira, iazko urtarillarekin alderatuta +1 puntu.

Industria-enpresen %17,5ek aurreikusten dute enplegua handitzea (metalikoak %19: metalurgia %19,5 eta makineria %22; metalikoak ez direnak %12,5); eraikuntzan %50 eta zerbitzuetan %22 (merkataritza eta ostalaritza %20,5; enpresei zuzendutako zerbitzuak %24).

Enplegua murriztea aurreikusten duten enpresak %11,5 dira, iazkoaren aldean +2 puntu.

Industria-enpresen %14,5ek aurreikusten dute enplegua murriztea (metalikoak %14: metalurgia %17, makineria %11; metalikoak ez direnak %16,5); eraikuntzan %10 eta zerbitzuetan %7 (merkataritza eta ostalaritza %10,5; enpresei zuzendutako zerbitzuak %4).

Enpresen %67,5ek ez dute aldaketarik aurreikusten plantillan, iazkoaren aldean -3 puntu.

Industria-enpresen %67,5ek mantentzea aurreikusten dute (metalikoak %66,5; metalikoak ez direnak %71,5); eraikuntzan %40 eta zerbitzuetan %71 (merkataritza eta ostalaritza %69; enpresei zuzendutako zerbitzuak %72).

Oro har, enpresen %88,5ek aurreikusten dute plantilla mantendu edo handitzea, iazkoaren aldean -2 puntu.

Industria-enpresen %85,5ek mantendu edo handitzea aurreikusten dute (metalikoak %86; metalikoak ez direnak %83,5); eraikuntzan %90 eta zerbitzuetan %93 (merkataritza eta ostalaritza %89,5; enpresei zuzendutako zerbitzuak %96).

Emaitza hauek Gipuzkoako ekonomiaren multzora hedatzen baditugu, badirudi datozen hilabeteetan enplegua sortzen jarraituko dela. Horrela, 2026an urteko batez beste 2.000 eta

3.000 soldatapeko enplegu garbi sortu litezke, batez ere zerbitzuen eta eraikuntzaren sektoreetan, betiere profil egokien eskuragarritasunak ahalbidetzen badu. Industrian, berriz, balantzea geldialdikoa izan liteke.

Kezka-faktoreak

Lan-kostu handiak eta soldata-igoerak, absentismoa eta langile kualifikatuak kontratatzeko zailtasuna dira enpresen kezka nagusiak.

Tentsio geopolitiko eta komertzialak laugarren postura igo dira; kostu baxuko herrialdeen lehia handiagoa eta enpresa-fiskalitatea dira gehien aurreratu diren beste faktore batzuk.

Lan-kostu handiak eta soldata-igoerak dira kezka nagusia (%48,5), 2023ko irailetik lehen postuan. Sektoreka, industria-enpresak dira kezka handiena dutenak (%53), eraikuntzakoak (%50) eta zerbitzuetakoak (%41) baino gehiago. Industria barruan, metalikoek (%54, bereziki makineria eta ekipamendua %59) metalikoak ez direnek (%50) baino kezka handiagoa dute.

Bigarren postuan mantentzen da absentismoaren kezka (%37), iazkoaren aldean +3 puntu.

Hirugarren tokian, langile kualifikatuak kontratatzeko zailtasuna (%35), +1,5 puntu gehiago.

Zazpigarren postutik laugarrenera igaro da tentsio geopolitiko eta komertzialen kezka (%29,5), iazkoaren aldean +14 puntu; irailetik eta iaztik gehien handitu den kezka da.

Nazioarteko ekonomiaren ahultasunaren kezka (%29) arintzen jarraitzen du, iazkoarekiko gehien jaitsi den faktorea izanik.

Seigarren postuan dago salmenten errentagarritasunaren jaitsieraren kezka (%21).

Ondoren datoz lehengaien hornidura edo prezioen kezka (%17,5), kostu baxuko herrialdeen lehia handiagoa (%17,5) eta Espainiako ekonomiaren ahultasuna (%16,5). Lehen biek gora egin dute irailetik (+2,5 eta +3,5 puntu), baina Espainiako ekonomiaren ahultasunaren kezka beherantz doa (-4 puntu irailetik), 2018ko apiriletik izan den mailarik baxuenera iritsiz, eta iazkoaren aldean -6,5 puntu.

Lehengaien kezka ere apur bat jaitsi da iazkoarekin alderatuta (-0,4 puntu), baina kostu baxuko herrialdeen lehiaren kezka +4 puntu igo da, 2018ko irailetik izan den mailarik altuenera iritsiz.

Zerrenda amaitzen dute enpresa-fiskalitatearen kezkak (%13,5), banku-finantzaketak (%7), truke-tasak (%6,5), giro sindikalak (%5), bezeroen berankortasunak (%2,5) eta nazioarteko garraio-tentsioek (%0). Horien artean, nabarmena da enpresa-fiskalitatearen kezka, iazkoaren aldean +3,5 puntu igo baita, 2020ko urtarriletik izan den mailarik altuenera iritsiz.